

15/2026 Irizpena, maiatzaren 4koa: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren Foru Aginduaren proiektua, zeinaren bidez arautzen baitira basafaunak ganaduari egindako kalteengatiko kalte-ordainak.

Eskatzailea: Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Txostengilea: Rafael Lara González

Interesa: Kontsulta publikoaren izapidea ez egitea. Ganaduari eragindako kalteen balioespena zedarritzeko parametroak. Atzeraeraginezko ondoreak.

Foru Aginduaren proiektuaren xedea da ganaduari eragindako kalteengatiko kalte-ordainak zenbatesteko metodoa eguneratzea, honako hauek bereizita: haragijale basati handiek eragindako kalteak, saiek eragindakoak eta babespeko basafaunako beste espezie batzuek eragindakoak.

Foru Aginduaren proiektua prestatzeko prozedurari dagokionez, Kontseiluak iritzi dio ez dela nahikoa arrazoitu jendaurreko kontsultaren tramitea ez egiteko erabakia, kontuan izanik ezen Foru Agindua onartzeak berekin dakarrela ukitutako pertsonen betebeharrak ezartzea, Foru Aginduan bertan ezartzen diren kalte-ordainak ordaintzeko arautu den prozeduraren barruan. Iritzi dio, era berean, proiektua gerora jendaurrean jarri izanak, Gobernu Irekiaren Atarian, ez duela konpontzen aipatutako tramite hori egin ez izana.

Proiektuaren edukiari dagokionez, kontseilariak nabarmentzen du ezen «ZIOEN AZALPENA» izena erabili beharko litzatekeela «HITZAURREA» hitzaren partez, azken hori bai baitagokio dagoeneko onartuta dagoen arau bati.

Proiektuak artikulua bakarra du; arauaren xedea zein den zehazten da hor, eta sei apartatu ditu. Artikulu horren 1., 2. eta 3. zenbakietan zehazten dira bai kalte-ordaina jasotzeko eskubidea ematen duten kontzeptuak, bai zer faktore edo zer elementu hartuko diren kontuan zenbatesteko haragijale handiek, saiek eta babespeko basafaunaren beste espezie batzuek ganaduan eragindako kalteak.

Arautu diren kontzeptuetatik, hiru hauek guztientzat dira: «ukitutako animaliak», «albaitaritzako gastuak eta ziurtatutako abortuak» eta «lortu gabeko irabaziak». Kontseiluak iritzi dio, abortuei dagokienez, ez dela zedarritu nola balioetsiko diren, eta zedarritu beharko litzatekeela, segurtasun juridikoa handitzeko, eta zehaztu beharko litzatekeela zer pertsonaren, talderen edo organoren esku utzi den abortu ziurtagiriak ematea.

Artikulu bakarraren 4. eta 5. zenbakiek aurreko zenbakien arautzea osatzen dute. 6. zenbakian kalteak jakinarazteari buruzko arauak jaso dira bai eta kalteak aitortzeari buruzkoak ere, dagokion kalte-ordaina finkatze aldera.

Proiektuak baditu xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ere. Azken xedapen horretan ezarri da ezen arauak indarra hartuko duela Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean eta ondoreak izanen dituela 2025eko urtarrilaren 1etik izandako kalte-ordain eskaeretarako.

Kontseiluak iritzi dio atzeraeraginezko ondore horiek onuragarriagoak direla ukitutako pertsonentzat eta, horregatik, ez direla ordenamendu juridikoaren aurkakoak. Gerta liteke, alabaina, arauak indarra hartzean dagoeneko itxita egotea 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera ganaduari eragindako kalteei buruzko kalte-ordainen espediente batzuk, eta ez da zedarritu zer ondorio juridiko diren bidezkoak kasu horietan.

Nafarroako Kontseiluak ondorioztatzen du ezen proiektu hau, zeinari buruzko irizpena ematen baita, bat datorrela garatzen duen arau-esparruarekin.